

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ayerdi lehendakariordea Naturgy enpresak sustatutako 'Barasoain' eta 'Tirapu' parke eolikoetako lehen harria jartzeko ekitaldian izan da

*Hamabost aerosorgailu jarriko dira, bakoitza 3.3 MW-ko potentziakoa; horretarako, 45 milioi euroko inbertsioa egingo da, eta uztailean abian hasiko dira*

Asteartea, 2018.eko azaroak 13

Garapen Ekonomikoko lehendakariordea den Manu Ayerdi 'Barasoain' eta 'Tirapu' bi parke eolikoetako lehen harria jartzen izan da astearte honetan. Naturgy enpresa arduratuko da horiek instalatzeaz Añorbe, Artaxoa, Barasoain, Oloritz eta Tirapu udal-mugartetan. Enpresak 45 milioi euro inguruko inbertsioa egingo du hamabost aerosorgailu jartzeko.



Instalazioaren lehen harria jartzen.

Barasoaingo parkean hamaika aerosorgailu jarriko dituzte eta Tirapun beste lau. Bakoitzak 3.3 megavatioko potentzia unitarioa izango du, eta guztira 155.000 MWh ekoiztuko dituzte urtean. Ayerdi lehendakariordeaz gain, lehen harria jartzeko ekitaldian izan dira Añorbeko alkatea, Joaquín Sanz, eta Naturgyko Sorkuntza Garapeneko zuzendaria, Carlos González Samano.

Oraingoz azpiegitura instalatzeko prestakuntza-lanak egiten hasi dira: sastrakak kentzeko eta inausteko edo lurrak mugitzeko lanak. Behin kokapena egokituta, indusketa-faseari eta turbinen zimenduak jartzeko faseari hasiera emango diote, azkenik, horiek muntatzen hasteko. Parke horien sarerako lehen isurketa 2019ko uztailean hasiera aldera egitea aurreikusten da.

Bi parkeen hasierako ingeniari-taldea Nafarroako Industria Elkartearen (AIN) bidez garatu da, eta Barasoain, Irunberri eta Castejongo Nordex-Acciona instalazioek hartu dute parte, dorrearen turbinak, nazelleak, palak eta segmentuak fabrikatzeko. Obra zibileko eta elektrikoko lanak egiteko, enpresa tokiko hornitzaileekin ari da lanean baita ere.

Aerosorgailuak Nordex-  
Accionaren AW132 3300  
modelokoak dira, 120 metroko

abatz-altuera (zilindroa) hartzen dute, 132 metroko errotore-  
diametroa eta 186 metroko altuera palaren puntaraino.

Eraikitzerakoan, ingurumen eta arkeologia arloko etengabeko segimendua egingo da, Ingurumen Inpaktuaren Deklarazioan, landare, fauna, atmosfera, hidrologia eta ondasun kultural eta arkeologikoei dagokienean, definitutako neurriak betetzen direla bermatzeko. Kaltetutako azaleretan berriro landareak jarriko dira, eta parkearen bizitzan zehar aldizkako ingurumen-segimendua burutuko da.

Gaur egun, Naturgy enpresak beste lau parke eoliko ditu Nafarroan, Derna enpresak ustiatzen dituenak, eta horietan %50eko partaidetza du. 130 aerosorgailuko eta 146 MW-ko potentzia instalatuko instalazioak Nafarroako bederatzi herritan kokatzen dira: Añorbe, Artaxoa, Barasoain, Biurrun-Olkoz, Funes, Leotz, Azkoien, Tirapu eta Untzue.

#### ARGAZKI-OINA:

Ezkerretik eskuinera: Jesús Manuel Calvo Arroyo, Naturgyren Berriztagarrien Garapeneko proiektuen arduraduna Nafarroan; Joaquín Sanz, Añorbeko alkatea; Manu Ayerdi, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoko lehendakariordea; Carlos González Samano, Naturgyko Sorkuntza Garapeneko zuzendaria; eta Yolanda Blanco, Nafarroako Gobernuko Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusia.

